

AXULAR JEKYLL, AXULAR HYDE

Patxi Salaberri Muñoa

0. Gizakion adimen-mekanismo ezkutu desberdinak direla kari, errealitatea parametro ulergarrietara mugatzeko premiak maiz asko jokaera oroberdintzaile eta eskematizatzaileegiak erabiltzera bultzatzen du. Eta erabili ere, kategoria finkoak eta zalantzarik gabekoak bailiren erabili ohi dira sarri.

Garai zaharreko idazle eta pentsalarien esparrua jorratzerakoan, esaterako, arrunt bihurtu izan da haien ezaugarri esanguratsuenak (literarioak, ideologikoak zein psikologikoak) batzeko joera eta, ageriko kontraesanik ez dagoenean bederen, nortasun bakar eta logiko baten inguruan integraztekoa, ohartu gabe (eta, ondorioz, bereizi gabe) uste baino gehiagotan zinezko izaera bikoiztu kontrajarriak gorpuzteko parada uzten diela errealitateak autoreei.

Ez da euskal literaturaren eremua horretan salbuespen, jite horretakoa baizik, anitzetan autoreez iritsi zaizkigun datu urriek ez baitute argirik eskaintzen esparru ez-literarioetan pertsonaiaren profila burutu ahal izateko. Baina, okerrago dena, ez gutxitan inpresioa da jokaera oroberdintzaileok, autorearen alde zein aurka, diskrezionalitate gehiegirik gabe erabiltzen direla.

Areago: inoiz haien testuetatik lekukotasun argi-emaile berezirik espero izatekoa zenean ere, autoreen isiltasunak berak jokaera berdintzaile horiek gizentzeko baino ez du balio izan. Ildo horretan, ezaguna da euskal historian bortizkeriaren kalifikatiboaz irudikaturik (halakoxeak izan baitziren!) geratu izan diren gertaeren ingurukoez jazotakoa.

XVII. mendearen hasieran, eta besteak beste “egiazko” erlijioaren aurka omen ziharduten sorginen xahupenaren aitzakiapean, Sarako esparrua (sorgin gaiztoen kopururik handiena biltzen omen zuena) zeharo astindua suertatu zen.

Printzipioz -eta teorian bederen-, errealitatearen oihartzun izpiren bat literaturan islaturik ikustea espero izateko zerbait bazen ere, ezagun da ez zela horrela gertatu euskal letretan; dakigularik, ez islada argi, zuzen eta zalantzarik gabekoen bidez, behinik behin. Izan ere, une latz horiek isiltasuna baino ez baitzuten utzi idatzirik, pairatu zuten errealitatea ohikoa izan balitz bezala, inork ezer nozitu izan ez balu legez, gizarte hartan ezer gertatu izan ez baitlitz.

Esan liteke kategoria isil eta hutsen (= formalki hutsik diruditenen) mailako izan zirela horiek euskaraz idatziriko orrialdeetan, nahiz eta hemen usatu den historiografiak gero akritikoki -eta honekin, hasieran adierazi puntura itzultzen ari gara- orrialde horien egileen soslaia taxutzerakoan normalean haien "aldeko" irudia egiteko erabili dituen.

Eta egoerarik nabarmen eta larriena isiltasun horren "aprobetxamendua" ezinbestean bortizkeriaren lekukorik garrantzitsuena izan behar zuenaren alde agertzean emango zen, inguru haietako jende jipoiuaren ardura eklesiatiko-izpirituala zeramanaren aldeko erabilera antzematean, euskal literatura klasikoan lehen idazletzat hartua izan denaren beraren aldekoa hain zuzen. Sarako erretoreaz ari gara, jakina.

1. Urdazubin jaiotako idazlearena sarritan arazo bezala planteatu izan bada ere, ez da gogoratu behar, histori dinamika garaileen mitifikaziorako joeragatik nonbait, haren alde jokatu izan dela salbuespenik gabe. Ondorioz, haren irudiaren handitasunak irabazi egin du etengabe, eta idazle gisa zuen ospe gaindiezinari ezin hobetuzko "portaera"-ren bertutea erantsi zaio sistematikoki.

Izan ere, Axularrez geratu zaigun estereotipoa giza-perfekzioetik hurbil dago. Eta ez da estereotipatze horrena gure garaiko historialari bati edo besteri egotz dakioken errua, azken batean tradizioaren eta, nola ez, kausalitate legearen poderioz gertatu bide baita horrela. Villasanteren eskutik Axularrez agertu zen irudi "ulerkorra"¹, esaterako, pixkanaka osatuaz joango zen eredu

¹ Sarartuaren obran ea zergatik ematen zen sorginei buruzko isiltasuna galdetzean, honako hau erantzuten zen: "Hauxe da harrigarria: Gero-n giristinoen bekatu mueta guztiak aipatzen direlarik, sorginkeriaz ta abar ez da fitsik esaten. *Menturaz, lehengo izigarrikeriak berritzeke ez zuen aitzakiarik eman nahi*, edo ta bazekien Axularrek gaiztakeria baino gehiago buruko eritasuna eta ezjakina zirela guzti hoiien azpian" (Villasante 1972, 76; gurea da letrakera etzana).

finko baten lehen urrats modura geratuko zen ondokoentzat. Eta Villasanteren hitz zuhurak betiere "menturaz" delakoaz lagundurik agertu arren, hipotesiaren benebolentziak inolako kalterik ekarriko ez zuelakoan edo (alderantziz baizik, "santifikatuago" agertzen zen gure idazle klasikoa), luzatutako formulazio hori handik aurrera Axularrez "ofizialki" onartu eta mantenduko zen iritzia izango zen, frogarik behar ez zuen ideia alegia.

Hipotesi horrek Angel Irigarayrena izango zuen bidailagun, autoritateen printzipioa areagotu ahala, historiografia ezin zalantzan jar zezakeen topiko batez "aberastu" zelarik². Harrezkero, eta Altunaren irakurketa ikonoklasta samarraren salbuespenarekin (1996), iritzi hedatu hori izango zen euskal literatur testuetan nagusituko zena. Xarritonek berriki argitara eman duen hitzal-di bateko hainbat ideia ere ildo horretakoak direla esan daiteke³.

2. Nolanahi ere den, Axularren giza soslaiaren lehen hurbilketa orokorrean ez dirudi zilegizkoa denik herri tradizioan utzi duen irudia zeharo albo-atzea. Izan ere, zinezko leienda bihurtzerainoko nortasunaz karakterizaturik geratzeaz gainera, gure pertsonaiaren irudikapenak ez-ohiko ezaugarri nagusi bi erakusten ditu literatur tradizio horretan. Batetik, jakituriarena eta, bestetik, arimarik gabeko pertsonaiatzat agertzen duena.

Jakina den legez, Axular betidanik azaldu izan da herri literatura delakotan pertsona jakitun bezala, gutxienez *deabruarenaren pareko jakituria* zeukana (deabruak Salamancan bide zuen "leizean" ikasi omen zuen urdazubiarrak,

² "Zergatik ezdu Axularrek bere liburuan sorginkeriaz itzik ere aipatzen? -Bekatu aundi bat izanik eta orduko Euskalherrian asko edatua? -Nik uste dut eta bestek ere, *ixilegote horrek, ozenki adierazten duela agintari sukoi (!!) eta herritar gogor haien epai eta ikusmolde krudelekin, etzagoela batere ados*; eta emazteki ments, zorigaiztokoen aitorenpetan gutti sinesen zuela" (Irigaray 1974, 123-124; gurea da letrakera zeharra).

³ Nahiz eta, dena esateko, hazpandarrak berezko duen zuhurtziak "menturaz" eta "-ke"-dun adizkiekin idaztera bultzatu duen: "Zergatik ez dugu beraz hitzik aurkitzen ez politikari buruz ez sorginkeriari buruz *Gero*-ko 60 kapituluetan barna? Zergatik ote? Gai beroegiak hunkitzea ez zuen laket menturaz Axularrek. Predikari anitzek bezala, nahiago zukeen aski urrunetik eta inguruka bezala suiet horien tratatzea; eta pentsa zezakeen berak garbiki gaitzesten zituen etsaigoak eta hasarreak gaindituz sendatuko zirela gleraren eta sorginkeraren ondorio kaltegarriak.

Ala amens baten beste arrazoirik ixiltasun horren gibeletik? [...] Ausartuko naiz Axularri galdetzera ez ote zituen gauza zenbait xilpean utzi, bera "*ondo baino hobeto*" bakean bizi beharrez? Ez ote ziren orduan ere, gaur bezala, zeruan eta geroan jartzen begiak, gaurko eta lurreko berriak eta bazterrek nahasiegiak eta larriegiak zirelarik?" (Xarriton 1997, 137).

amaieran deabrua baino azkarrago izatera iritsi zelarik). Eta hura bezain bildurgarria, inondik ere.

Jakituria lortze horren ordainketa gisara, eta tradizioak berak espresuki adierazten duenaren arabera, *arimarik eza* sinbolizatzen duen itzalik gabeko pertsonalitate bihurtuko zen Axular, zinez jakitun eta deabruak baino azkarrago jokatzearan galdu baitzuen. Harrezkero, eta orduko testuinguru katoliko intrantsigentearen perspektiba ahaztu gabe, arima Jainkoaren graziagatik eta ezinbesteko zenean bakarrik itzultzen zitzaiola kontatzen du tradizioak, hau da, kotsakrazioaren unean. Uste izatekoa da sakrilegiorik gerta ez zedin gertatzen zela horrela, gero jendeak eukaristian jasoko zituen ostiak egiazkoak izan zitezen, eta ez bekatu larrienaren fruitu, hain zuzen.

Orobat, Axularren heriotzaz arduratzen den kontakizunak adierazi bezala, ez da zalantzarik arima ez izate horrek zerurako bidea eragozten ziola erretoreari eta horrexegatik planifikatu behar izan zuela bere heriotza (mezerdiko sagaratze orduan eta besteri aginduz eta betearaziz). Azken unean egindako bekatu larri baten bitartez, bada, nahiago izan bide zuen zerurantz —edo Azken Judizioko ekitaldirantz behintzat— abiatu, infernura kondenatzen zuen egoeran iraun baino. Saratartuaren jakituria erraldoiaren azken froga izan zen hau, Jaungoikoari berari jartzen baitzion egiazko proba: azken-azken unean Agindu Nagusiak berariaz hausten zituena salbatzeko ezintasun teorikoaren aurrean, kalbinismoak aldarrikatzen zuen sinesmen hutsaren bidezko salbazioaren doktrinaz baliatzea erabaki baitzuen Axular katolikoak praktikan. Baina teologiaren esku gera bedi infernuko bidea uzteko eta zerurako aukera izateko heriotzaren unean bertan bekatu larria egiten duen sineslearen arazoa!

Ipuinak ipuin, herri tradizioak transmititu duen irudia deabru eta sorginen ahalmen eta botereen gainerik zegoen arimarik (kupidarik?) gabeko gizon jakitun, boteretsu eta bildurgarri⁴ batena da; inolaz ere ez santutasunarekin, errukiarekin, ulerkortasunarekin edota bertute kristauekin lotua.

Eta guztiarekin ere, erraz ikus daiteke egungo autoreek Axular irudikatzeke erabili axioma moduko premisa guztiz bestelakoa dela, hots, urdazubiarraren ustezko perfekzioan oinarritua: betegintzarre erlijiosoa, linguistikoa, literarioa, eta, ondorioz, ideologikoa, portaerazkoa, etab. Eta horrela,

⁴ Aspektu hau berau azpimarratzen du Lafittek kontatzen duen pasadizo errealek ere, Axularren *Gero* sorginkeriazko liburutzat harturik, gazte-gaztetik ohepean gordeta zuen olhetar gizon hil-hurranarenak hain zuzen (Lafitte 1956, 341).

pertsonaiaren profilaren balorazio orokorra ere ikuspuntu "ortodoxo" horretatik burutu da⁵.

3. Baina zer esan liteke gure esparru historiografikoan Axular "mi(s)tifikatzeko" egon den premia horretaz? Zeintzuk izan dira Axular arlo guztietan goraiapatua izateko beharrak? Zeintzuk urdazubiarra giza maila arrunt eta xumera jaisteko behaztopak?

Lehen begiradan bederen, balirudike gure literatura homologatzeko beharrarekin lotuta dagoela premia hori, gure literatura ere ondoko hizkuntzetakoetan dagoen urre garaiaren parekotzat irudikatu beharrarekin hain zuzen.

Horrela, literatur proiektu bateratu baten fruitu gisa aurkeztuko zen urte haietan euskalki bertsean idatzitako ekoizpena eta, XX. mendera arteko literatur urritasunak ikusirik -eta oraindik mende honetako 80ko literatur hazkunde susmatu ere egiten ez zenean-, "urre garaitzat" joko zen guztia Euskal Literaturaren Historian.

Kronologiari eta besteri muzin eginez, literatur "eskola" bat ere antzemango zuen historiografiak bertan eta, nola ez, proiektu-buru bat hautatzeko beharra ere azalduko. Premisa horiekin, egin zitekeen hautaketarik zuzenena izango zen Axular aukeratzearena, distiratsuen izan baitzen haren idatzizko ekoizpena⁶ inondik ere.

Horrek izan du ondoriorik, ordea, ezin baita ahantzi tradizio eta kultura katoliko kontrarreformistaren seme-alabak izan direla literatur historiografiaren inguruan jardun duten gehienak (apaizak zein laikoak). Horrelakoetan, eta oharkabean bada ere, oinarritzko identifikazio logikaren legea ohi da gizakiak irizkide-edo direnei akatsik gabekoago iriztea, ideologikoki urrun somatzen

⁵ Eta ez bakarrik literaturan; gurean ideologikoki erneago egon ohi den antropologia arloan ere kontrastatu gabeko aurriritzi horretaz baliatzera iritsi dira. Esparru horretan bide dabil, esate baterako, Axular "aque! comprensivo párroco" bezala edota Axularren etsai izango zen Harostegi "envidioso cura vasco"-tzat hartzen dituen autorea (Azurmendi 1995, 26).

⁶ Arrazoi anitzengatik gainera: Axularren hizkuntza ulergarria, zuzena eta naroa, haren obraren ustezko ezaugarriak (besterena baino teologia sakonagokoa eta akatsik gabea, argumentatzeko era aberatsa, originala, literarioa...), bere garaiko eta ondoko idazleen artean izandako prestigioa, bete zituen lanak eta euskal literaturan izan zuen presentzia (egun, testu "examinatzaile" buztintsu eta neutro moduan ikusia)... Eta ez zen gutxiestekoena obran bere nortasunaren (auto-)deskalkifikaziorako aztarnarik ez agertzea.

dituenei baino; errugabetasun presuntzioaren printzipioa bera ere aiseago onesten bide die halakotzat dituenei, hurko ez direnei baino. Jakina, horri guztiari denboraren sakontasunetan galtzen direnak ezaugarri identifikatzaile bakan bat(zu)en inguruan eskematizatzeke giza-joera eransten bazaio, burutua geratzen da pertsonaiaren estereotipatze positiboaren zirriborroa. Gero, premien arabera, "mitifikazioa" suerta daiteke hurrengo urratsa, protagonistaren irudia handiago bihur dadin, susmo txar guztiak ezabatzetik etor litekeena.

Axularren kasuan, haren etengabeko presentzia literarioak, haren ospeak, haren obra mardulak, hizkuntza joriak..., guztiak, azken batean, "beharrezkoa" zen autore "orokorra", "erabatekoa" bezala perfiletzera eramango zuen. Eta, halabeharrez, Axularrek erakuts zitzakeen alderdi ilunak eta garai doilor haietako egoeran izan zitzakeen inplikazioen susmoak berak ere isildurik geratu ziren. Erdi santifikaturik, bada!

Kanonizatze espedienteetan, dena den, ezinbestekoa omen da deabruaren abokatuak ere hitza har dezan eta zinezko etsai gisa ari dadin, horrela eginez gero, aurkaritzat jotzen duena benetan goraturik geratuko delako edo, merezi izan ezean, dagokion lur lauan. Eta abokatu horien ohitura da euren diskurtsoa datu erreal eta kontrastagarrietan oinarritzea.

4. Axularren bizitza gutxi dokumentatuari emandako lehen begiratuak, esaterako, haren pragmatismo goiztiarraren aztarnak uzten ditu agerian.

Ezaguna da, aita gabe geratzean, ahaideek (famiaren interes desinteresatua, alajaina!) ahalegin berezia burutu behar izan zutela apaiz ikasketak amaitzitan, amak ikasketok eginarazi bazizkion ere⁷, ez bide zioten ondasunik utzi⁸. Horretarako, 1595ean Elizondoko dozena bat ahaide elkartu ziren eta irin-errota bateko hamar zati eman zizkieten ondasun gisa erabil zitzan. Geratu dokumentazioa Axularren lege-abileziaz mintzo zaigu, ez alferrik jarri

⁷ "[...] María de Azpilcueta, viuda, vecina del dicho lugar, la cual dijo que ella tiene un hijo legítimo y natural, llamado Pedro de Axular, a quien le ha hecho estudiar en la Universidad de Salamanca, con ánimo de ordenarse de sacras órdenes y que celebre y diga Misa [...]" (Aguirre 1980, 419).

⁸ "[...] dijeron que ellos tenían un pariente y amigo llamado Pedro de Axular, estudiante, natural de la granja de Urdax, que al presente reside en la Universidad de Salamanca oyendo Theologia y desean sea sacerdote y para ello ordenado de sacras órdenes y es huérfano, que sus padres no le dejaron patrimonio [...]" (Irigaray - Aguirre 1978, 489).

baitzuen amaren izenean ahaideek bere izenean jarritako bolua, gero -hurrengo egunean bertan- amak patrimonio gisa eskaini ziezaion berriro semeari (ik. Aguirre Gaztambide 1980).

Horretan erakutsi pragmatismo eta trebetasun berberarekin, Axularrek berehala burutu zuen "lasterketa" -zinez!- eklesiastikoa. Gazteago edo zaharragoa (adinarena oraindik ilun dagoen puntua baita), kontua da 1595eko irailaren 23an, Teologian batxilergoa eskuratu bezain azkar beraz, subdiakono ordenatu zutela Iruñean. Hurrengo urtean, berriz, diakonatua eta apaizgoa eskuratuko zituen, bakoitza toki batean gainera, lehena Leridan 1596ko ekainaren 8an, horretarako baimena Iruñean maiatzaren 13an eman ziotelarik. Apaizgoa, berriz, Aturbeko gotzaiaren eskutik urte bereko irailaren 21ean (baimena Baionako katedraleko Bertrand Hiriart-ek eman zion).

Gorago esandakoarekin bat eginik, subdiakonatu jasotzean "ad titulum patrimonii" eskuratu zuen ordena, ahaideek utzi zioten ondasunaz baliatuz.

Baina hori guztia urdazubiarraren egoera eta izaera ezagutzen hasteko gutxi izango balitz ere, handik hona ibiltzeko erakutsi zuen erraztasunak berak badirudi haren egoera ekonomikoaren isla eskaintzen duela, gutxi batzuk baino ezin ordain baitzitzaketen hain denbora gutxian egindako bidaiak eta egoitzak: Salamancatik Iruñeara, Iruñeatik Leridara (joan-etorria), Iruñeatik Baionara, Baionatik Aturbera (joan-etorria), etab.

Esan dezagun bidenabar Axularrek ez zuela lehen pausuk eskaini zizkion ordenan jarraitzeko gogorik azaldu. Ez dakigu zehatz noiz eta zergatik izan zen, baina pentsatzekoa da Felipe II.aren agindupean ordena premontretarrak jasan zituen jazarpenak eta desmantelamenduak⁹ izango zutela eraginik gure autorearen "desertzioan" eta ondoko bokazio ipartarrean, hots, etxetik hurbil baina muga politikoaz haraindi aritzeko sartu zitzaion bokazioan. Are gehiago: gaztelera frantsesa baino aiseago zekiela eta zerabilela zioen hipotesia

⁹ Espainiar premontretarren krisialdia 1568aren inguruan sortu zen, ordena zeharo deuseztea proposatu zutenean eta, gora-behera zenbaitekin, 1600erarte iraungo zuen. Premontreren eraginetik at geratzean. Jakina, aukera edo mauka erlijiosoaz gainera (Felipe II.aren iritzi interesatuegiaren arabera, "pocos frailes", "son todos idiotas, sin letras ni doctrina... Y allende de ser idiotas, son en las costumbres muy distraídos y de muy mal ejemplo, pues ni guardan clausura ni tienen modo ni forma de orden ni observancia alguna") (apud Goñi Gaztambide 1960, 14-15), horrek arriskuan uzten zituen monasterio eta kide guztien ondasunak (kalizak, bitxiak, gurutzeak...). Jeronimotarren erasoaren aurrean Urdazubiko monasterioak erresistentzia handia erakutsi arren, laster onartu zuen haien menpeko bihurtzea, erregearen ordena hautatua ziren heinean botere guztiak erabiltzeko ahalmena baitzuten jeronimotarrek, eliztarrak barne: eskomikatzekoa, zigortzekoa, askatzekoa...

aintzat hartzen bada ere (Urquijo 1912b, 7), bizitza ziurtatzeko eta hobetzeko pragmatismoa da iparralderatu berriak berriro erakusten duena.

Iparaldeko predikari gisa hasi zenean ere toki aberats eta populatuenetako bat egokitu zitzaion. Kasualitatez nonbait.

5. Lanbide berriak ere izan zuen irakaspen lasterrik, berehalakoan ohartu baitzen Axular bere dohai, ahalmen eta "hazteko" trebetasunez.

Eta gogotik heldu bide zion lanari, hain gogotik eta sutsuki ezen bost urte iragan baino lehenago Frantziako erregearen adiskidetasuna erdiestera iritsi baitzen¹⁰, hurrengo lerroetan adieraziko den bezala. Erantsi baino ez urdazu-biarrak orduan zuen egoitzaren lekukotasuna Henrike IV.aren beraren esku-tik heldu zaigula:

"il y a environ cinq ans qu'il (Axular, hain zuzen) est résidant en France au bourg de Saint Jehan de Luz au bailliage de Labourt" (apud Urquijo 1911, 554).

Noski, hipotesi modura bada ere, zinez pentsa daiteke mendebaldean zegoen predikari egokien eskasia areagotu egin zela erlijio katolikoarekin kontrakarra planteatu zen tokietan. Ipar Euskal Herria konfrontazio-gune berezia izan zen heinean (erlijio gatazken estalpean gizarte eta politika arazo larriak), predikariak ere mailakoak behar zuten izan, egoera garbitzeko eta "zuritzeko" modukoak hain zuzen.

Susmatzekoa da Axular Donibane Lohizunen eta Saran -bigarren hau istilu-gunearen paradigma- aurkitu izanak edukiko zuela nolabaiteko loturarik toki haietarako predikaririk onenak (jakituria eta euskalkiagatik, behinik behin) eta antzetsuenak behar izatearekin ere.

¹⁰ Harrigarri samarra lagunak aukeratu beharko zituzkeen Axular bezalako katoliko baten aldetik, dena den. Ez da ahaztu behar Henrike IV.aren adiurra zinez politikoa zela, erlijioa bera politikoki erabiltzeko damurik eskaintzen ez ziona. Adibidetzat, beti nabarmendu izan da haren "konbertsioa", "Paris bien vaut une messe" formulan oinarritu zena. Horrezaz gain, kalbinismotik katolizismora erakarri zuen barne-konbikzio hura, urte gutxiren buruan, eta ordurako Axularren menpeko ziren lurraldeetan hain zuzen, katolizismo integrista eta ezin bortitzago bilakatuko zen, haren aginduz etorritako Pierre Rostegi jaunak egindakoak ezin hobeto erakusten duen bezala.

Kontua da predikaria zen bitartean Axularri beste perspektiba batzuk ireki zitzaizkiola¹¹ eta Sara beretzat hautatzeko (irakur bedi “negoziatzeko”) parada egokitu; eta aukeratzekoan, bazekiela erdietsiko zuela, besteak beste, horretarako baitzeuzkan lagunak eta adiskideak eremu erlijiosoan eta politikoa.

6. Ez da aro honetako gutun asko, tamalez. Halere, dauden gutxitxoek aski garbi erakusten dute Axular garai hartako gizartearen gogokoa zela betebetean, gizarte kultu eta “ondo pentsatu”-aren gogokoa, behinik behin.

Eta pentsatzekoa da gogoko izate hori ez zela haren urrezko mihiagatik bakarrik sortua, ideologikoki eta doktrina mailan defendatzen zuenagatik baidetik, ezaguna baita monarkiaren eta hierarkia eklesiastikoaren, bi-bien gustuko mezua ongiro predikatua denean askoz ere baloratuagoa ohi dela. Eta, ondorioz, eskertuagoa ere bai.

Ildo horretatik, Frantziako eta Nafarroako erregea zen Henrike IV.aren hitzek ez dute zalantzarik uzten:

Il nous a esté remonstré de la part de *notre cher et bien aimé Pierre d'Achular* pbre gradué den Thèologie, natif du lieu d'Urdach de notre royaume de la Haulte Navarre, qu'il y a environ cinq ans qu'il est résident en France au bourg de Saint Jehan de Luz au bailliage de Labourt, où durant led. temps il a presché la parole de Dieu *au gré et contentement de l'evesque et gens de bien dud. pays* [...] (Urquijo 1911, 554 or.; gurea da letrakera etzana).

Antzematen denez, ez dirudi gutxi denik lerro hauetan adierazten dena. Batetik, Henrike IV.ak berak egiten duen aitorpenean ezin hobeto ikusten da Axularrek erregearengan lortu zuen hurbiltasun afektiboa (“*notre cher et bien aimé*”), erregeak urdazubiarraren arerio gisa agertuko zen Harostegi apaiza tratatzeko hoztasunarekin biziki kontrastatzen duena hain zuzen¹².

¹¹ Lahetjusan apaizak zioenez, “Il prechoit le matin à S. Jean de Luz et le soir à Sare les fêtes et dimanches, à l'exemple de son predecesseur qui avoit été pareillement curé de S. Jean de Luz et de Sare. Comme il faisait après vêpres, à son ordinaire, une homilie sur le bon Pasteur, une femme lui cria du milieu de l'auditoire, jauna, arçain onac ardiac goyçetic alhaçen tu.

- Hemendic harat nic ere nereac hala eguinen ditinat.

Effectivement, il renonça à la curé de S. Jean en faveur du Cadet d'Urtubie son competeur” (ik. Azkue 1925, 61).

¹² Mespretxu-puntua falta ez duen hoztasuna seguraski: “Mais après avoir joui d'icellui quelque temps, Mr. Jehan de Harosteguy pbtre natif dud. bourg de Saint Jehan de Luz, *de gaieté de coeur et sans aucun fondament que* celluy qu'il objecte [...]” (Urquijo 1911, 554. or.; letra zeharrak gureak dira).

Bestetik, Axularren arrakasta-maila nabarmentzen da lerrootan, espreski aipatzen baita bertako gotzaiak eta jende zintzoak begi onez ikusten zutela ordura arte Donibane Lohizuneko predikari izandako urdazubiarra¹³.

Gotzaia, jakina, Baionako gotzaia zen, Etxauzko Bertrand, Henrikek berak izendatua zuena (1598) eta Axularren alde horrenbeste egin zuena.

Agerikoak dira urdazubiarrak Etxauzekin izan zuen adiskidetasuna eta honek garai hartako agintariekin izan zituen lotura politiko-erlijiosoak eta familiarrak¹⁴. Eta behar bezala argitu ez bazuen ere, omenaldi hutsa baino gehiago zirudien gero saratartuak bere "Gomendiozco carta"-n adiskideari aitortu zionak: "[...] neure obligacino handiec, *ontasun errecebituec*, eta bethi ere, *ene alderacotçat, obrequin batean, eracutsi duçun vorondate vorondate-tsuac*" (Gero, 4 or.; gurea da nabarmendutako letrakera).

Dakigunagatik, beraz, hasiera-hasieratik irabazi zuen Axularrek aginte faktiko guztien faborea, lau urte eskas besterik ez baitzuen behar izan apaiz ordenatu zutenetik Sara bezalako herri handi eta aberats bateko erretore bihurtu arte, "un ascenso meteórico, sin duda" (Altuna 1996, 188).

¹³ Jakina, nahiz eta elizarekiko eta monarkiarekiko "zintzoa" zen jendearentzat Axular gogoko gertatzea halako premisetatik berez sortzen zen ondorio hutsa baino ez izan, pentsatzekoa da Axularren nortasunak eta, batik bat, haren "urrezko mihiak" berak ere ez zutela horretan gutxi lagunduko

¹⁴ Etorkiz zein merezimenduz, Frantziako koroarekin harreman ezin estuagoak izan zituen Etxauzek. Izan ere, Henrike IV.aren desioz izendatu zuen Klemente VIII.ak Baionako gotzai 1599ko martxoaren 19an. Hogei urte egin zituen bertan Tourseko artzapezpiku bilakatu arte. Era berean, 1606tik aurrera Frantziako Lehen Erremusinari titulua eta kargua eraman zuen, hasieran Henrike IV.arekin eta Luis XIII.arekin gero. Bestalde, Axularrek bere eskaintzaren izenburuan gogorazten duen bezala, Izpiritu Santuaren Ordenako "aitonen seme" izan zen 1618tik aurrera. Gainera, Richelieu kardenalak eragozpenik jarri izan ez balio, kardenal bihurtua zatekeen. Luis XIII.ak bere Kontseilari bihurtzeak adierazten duenaz gainera, Urbano VIII.ak idatzi zion gutunean azaldu bezala, garbi zuen erregearen babesa eta konfidantza: "L'adresse et l'habilité qui vous ont mérité sa protection, semblent demander les plus grandes dignités, pour un prélat qui depuis 38 ans en cesse de déffendre l'autorité de la Religion chrétienne" (apud Daranatz 1911a, 55).

Pare bat datu Etxauzek erlijioan eta politika arloan izan zuen garrantziaz ohartzeko: bata, Espainia eta Frantzia arteko muga arazoak zirela eta, berari gomendatu zion Frantziako Luis XIII.ak konponketa. Bigarrena, Felipe III.aren seme-alaba bien ezkontzen hitzarmenetan izan zuen protagonismoa, Frantziako Elisabeth Borboikoa Espainiako Felipe IV.aren eta Luis XIII.a Ana Austriakoa haren arrebarekin ezkontaraziko zituztenetan hain zuzen. Eta hori guztia gutxi balitz, gogoratu baino ez Louis Servin errege-kontseilariak Sarako parrokiaren arazoan Etxauzen eskuhartzea antzematean kontrargumentatzen duena: "le nombre des perentelles et alliances d'iceluy Euesque" (ik. Urquijo 1912a, 293. ohar.).

7. Egia esan, puntu horrekin lotuak dira orain arte historialariek Axularri haren irudikapen biografikoak dituen hutsune historikoetatik argitaratu dizkioten ilunenak eta, aldi berean, haren izaeraren adierazgarrietakoak.

Batak zerikusia luke Axularren diozesi aldaketarekin. 1596ko ekainean diakonaturako luzatutako aktan “Pampilonensis diocesis” delakoa agertzen da urdazubiarraren elizbarrutia. Alabaina, handik hiru hilabetera, irailean hain zuzen, “diocesis Baionensis oriundo” gisara agertuko da lehenago Iruñekoa zena (ikus Urquijo 1911, 546).

Horretarako arrazoiak argitu ez diren arren, printzipioz bederen harritzeko modukoa dirudi Urdazubikoaren presa bereziak; eta txunditu ere, bat baino gehiago txunditu bide du¹⁵. Agian 1596. urtean bertan Donibane Lohizunen predikari aurkitzeak, aldez aurretik itundutako zerbaitez hitz egin lezake. Altunak, besteak beste, “razones de nepotismo de un alto prelado” (1996, 187) ikusten ditu tartean.

Bestalde, Urkixok jasotako agiri baten arabera, 1600ean bikoitza izango da Axularren adskribapen eklesiastikoa: “Petrus de Axular, presbiter, in sacra theologia baccalaureus, ejusdem Baionensis diocesis sive Pampilonensis” (Urquijo 1911, 547, ohar.).

Beste maila batekoa izan arren, ildo berekotzat jo liteke halaber Henrike IV.ak 1601ean erabili zuen arrazoa Sarako ardura Axularri eman zionean: urdazubiarra hangoa bezain hemengoa zen, eta batez ere Frantziako erregea zerbitzatzeko zuen “afektione naturala” hain nabarmena baldin bazen¹⁶ eta jokuan zegoen parrokiak Sarakoaren garrantzia bazuen.

Parrokiaz jabetzeko prozesua (“negoiazioa” esan dugu lehen) bitxia bezain esanguratsua izan zen; eta Parisko Parlamentuak berak Axularren kontra erabaki bazuen ere, indar korrelazioak hegoaldeetik joandakoaren aldeko agertu ziren beti, Frantziako indar faktikoak batik bat.

¹⁵ “¡Súbito y sorprendente cambio de diócesis!” dio Altunak (1996, 187).

¹⁶ Frantziako erregearen hitzak dira: “Sur quoy led. d’Achular nous auroit fait supplier très-humblement qu’il nous plaise luy départir nos Lettres de naissance pour demeurer en notre Royaume de France et estre maintenu et confirmé en la possession et jouissance de lad. Cure et autres biens et bénéfices qui luy pourront escheoir et appartenir.

Attendu que ceux dud. Royaume de Navarre sont de nos naturels subjects et tels tenus par Nous. Ne leur pouvant estre ostée ceste naturelle naissance et debvoir pour les terres dud. royaume usurpées et détenues par les Espagnols, lesquelles aussi led. d’Achular a quittées pour habiter perpetuellement sous notre obéissance, par l’affection naturelle qu’il a à nous servir” (Urquijo 1911, 555; gurea da letrakera zeharra).

Jean Douamet edo Donnameto, Sarako San Martin elizako parroko gai-
xoak 65 urte baino ez zituen lasai bizitzeko gogoia erakutsi zuenean. Baina,
jakina, zinez jubilazio lasaia izateko, ezinbestekoa zuen parrokia besteren
esku uztean, bizitzeko dirurik gabe ez geratzea.

1600.ean Axularrek eta parroko ohiak egin zuten akordioan biak atera
ziren pozarren¹⁷. Baina, ohi bezala, bazen horrekin guztiarekin bat ez zetorren-
nik ere. Donibane Lohizuneko Juan Harostegi, 1598ko abenduaren 19an
Aturben apaiztua, kentzeko ahaleginetan hasi zitzaion 1601ean¹⁸. Egoera bizi-
ki laztu zen eta, idazkietatik ondoriozta daitekeenez, bortizkeria ez zen doku-
mentuetara mugatu¹⁹.

Jabetze eguneko garaipenak lasaitasunik eman ez nonbait, eta, badaezpa-
da, "lettres de naturallité" izenekoak eskatu zizkion Axularrek Henrike IV.a
adiskideari. Honen erantzuna (adiskidetsua eta politikoa, aldi berean) ezagu-
na da: "n'estre besoing de Lettres de naturalité à nos subjects de Navarre pour
demeurer et tenir bénéfice en France" (apud Urquijo 1911, 554).

Jakina den bezala, erregearen eta Etxauzen parte hartzea erabakiorra ger-
tatu zen Axularrek irabaz zezan. Bordeleko Parlamentuak, esaterako, ia asti-

¹⁷ Parrokiak urtero ematen zituen 400 urre-dukateetatik zaharrak 140 eramango zituen eta sartu berriak beste gutzia. Gainera, arazorik egon ez zedin, Donnametok gutun bat igorri zion Aita Sainduari aipatu "trukaketa" uler eta onar zezan. Eta, horrela, Erromak onartuta-koarekin Baionako gotzaia zen Bertrand Etxauzkoak 1600eko uztailearen 10ean izendatu zuen Sarako erretoare. Hamabostean bertan Saran zen Axular Jean Harburu erretoariarekin eta zenbait lekukorekin. Pedro Lekunberri, parrokiako bikarioa, izan zen erretoareta formalki eman ziona.

¹⁸ Ezin jakin berbera den, baina 1609an Lancrek burutuko zuen errepresioaren ondorio gisako liburuan "maistre Jean de Harrousteguy, prieur de Souburnove" izeneko apaiz bat agertzen da bere izeba sorginaren aitortpena egiten (*Tableau...*, II. lib., IV. disk., 130 or.; apud Caro Baroja 1985, 194).

¹⁹ Urkixoren hitzek garbi isladazen dute egoera: "Creía también este último (Harostegik, alegia) tener derecho al mencionado curato, y resuelto á ejercitarlo, se presentó en Sara en la mañana del diez de marzo de 1601. Acompañábase de Labaig, *sergent royal*, el cual intimó en nombre del rey á *maistre* Micheau de Haristeguy, presbítero de la citada parroquia, diera inmediatamente posesión de la misma á Harostegui. Negóse á ello el primero, y entonces de Labaig hizo la misma intimación á otro sacerdote, llamado Etchegaray, el cual, después de examinar los documentos del contricante de Axular, se dirigió hacia la iglesia, cuyas puertas encontró cerradas. Volvieron á personarse en Sara, al día siguiente, de Labaig y Harostegui; y acompañados de Etchegaray, penetraron en la iglesia; pero, al disponerse Harostegui á decir la misa parroquial, se presentó Axular dispuesto á impedirlo.

Ante la enérgica actitud del hijo de Urdax, tuvo que retirarse Harostegui; mas no sin protestar previamente: «contre ledict d'Atchalar (*sic*) de tous despens, domaiges et interets et de se pourveoir par les remedes de droict et de justice»". (Urquijo 1911, 551-554).

rik ere ez zuen izan Harostegiren helegitea irakurtzeko eta Urdazubikoaren alde agertzeko (justiziaren azkarra, bi egun baino ez!). Eta Parisko Parlamentuan arazoa beste modu batez ikusi bazen ere (arrazoia helegileari eman baitzion), praktikan inork ez zuen Axular erretoretzatik jaurtiki.

Handik etorri zitzaion bizimodu lasaiak eta egindako adiskideek bestelako eginkizunetarako bidea ireki zioten berehala.

8. Izan ere, bestelakoa izango zen aurrerantzean Axularrez geratuko zitzaigun irudia, nagusiki kultua eta, nola ez, letra idatziei atxikia. Eta bereziki azpimarratu nahi genukeen irakurzaletasunarekin zerikusia duena horietako garrantzitsu bat baino ez litzateke.

Ezagun da urte horietako euskal argitalpenetan “irakurle” modura gehien agertzen den autore a bera dugula (beti ere Gillentenarekin batera, egia esan). Argitaratu liburu kopurua (urria) ahazten ez bada, portzentuak maiztxo azaldu zen Axular, maiztxo eta obra garrantzitsuetan gainera: 1616an Materrereren *Dotrina Christiana* liburuan (“Ikussi dut Bayonaco Iaun Vicario Generalaren manuz”), 1626an Ziburuko Etxeberriren *Manual devotioñezcoa* izenekoaren kariaz, eta 1636an egile berberaren *Eliçara erabiltceco liburua* delakoan.

Noski, edonork daki dagoeneko “irakurzaletasun” horrek bestelako zer-bait ere adierazten duela; besteak beste, eta orduko hitzak erabiliz, liburua argitaratzeko “aprobationea” baitzekarren ondorio gisa. Egun ez bezala, ares-ti hurbilean sarri ikusi eta dastatu behar izan den “nihil obstat” hura, XVII. mendean “edireiten dut eztuela deus ere gure Fede Sainduaren contraco gauçatic” (Axularrek Materrerenean) edota “eztut hartan edireiten gure Fede eta Eliça ama Catholica Sainduaren contraco gauçaric” (Gillentenak Materrerenean) bihurturik plazaratu ohi zen.

Erantsi beharrik ez dago euskaraz idazten zen guztiaren ortodoxia teologiko-doktrinala zaintzeko ardura zeukatenek sinatzen zituztela horrelakoak. Eta ortodoxia zaintzea, zentsura egitea, lehen orain bezala, bakar-bakarrik ortodoxia horretako egitura hierarkiko lokalean goiko mailetan daudenei, ortodoxiarekin bat datozenei, zalantza izpirik erakusten ez dutenei eskaintzen zaien zerbaite da. Laburbilduz, beraz, Axularrek, irakurtzen zuena argitaratzeko, zuzenarazteko, debekatzeko... (eta kondenatzeko?) ahalmena zuen²⁰.

²⁰ “Axular zentsorea” hipotesia korroboratzeko beste datu bat Leizarragaren *Testamentu Berriaz* egin izan zuen erabileran aurki liteke. Jakina denez, *Index librorum prohibitorum* izenekoak galerazita zuen horrelako autore (hereje, kalbinista) kondenatuen liburuak izatea,

Eta liburuen zentsura lana, historiak erakusten duen bezala, orduko ortodoxia erlijiosoa zaindu edota ortodoxia haren izenean egiten zen guztia zuzituzen zutenei baino ez zitzairen bizkarreratzen, pertsona ideologikoki ziurrenei.

Hori horrela izanik, eta XVII. mendearen hasieran Axularren Saran sortu jazarpen egoerara itzuliz, galdera sorta bat planteatzen da ezinbestez: behar bezain fidagarri eta ideologikoki ziurra izan zitekeen Lancrek 1609an (erregearen eta eliza katolikoaren manuz, ez ahaztu!) egin zuena kritikatu edo zalantzan jar zezakeen "examinatzailea"? Onargarri izan zekiokkeen orduko eliza katolikoari halako basatikeria haiekiko zalantza izpirik erakutsi zezakeenaren argitaratze baimena/debekua, hain zuzen ere errepresio hura guztia babesten zuen fedez eta doktrinaz mintzatzen ziren liburuetarako izanik?

Zail egin behar bide zaio garai hartako praktika katolikoa eta egitura eklesiastikoa ezagutzen dituenari Axularren jokaera bertutezko salbuespentzat hartzea eta haren garbitasuna eta neutraltasuna aldarrikatzea. Handiegiak dirudite haren inplikazio ideologikoeak.

9. Ildo beretik, gogoratu beharrekoa da ez dela hutsaren hurrengoa horrelako zentsoreak, baimena ematean, argitaratzeko dagoen obrarekiko erakusten duen identifikazio maila. Izan ere, nekez uler daiteke liburu bat argitaratzeko aprobazioa ematen duen aztertzaileak baimen hori eman izana baldin ez bada bertan agertzen diren baiezen garrantzitsuenekin adostasunik.

Jakina, mintzagai dugun mentalitatearen barnean jarriarik, gerta liteke fedearen aurkakoa ez den zerbait agertzea, zentsorearen gustukoa izan gabe onartu beharrekoa dena, besteak beste ortodoxia doktrinalarekiko jokamoldeak horrela erakutsi duelako. Betidanik gertatu da horrelakorik. Alabaina, ez da gertatzen liburu batean mamirako funtsezkotzat hartzen den zerbaitekin ados ez egon eta liburuaren argitalpena onartzea; edota egiazko erlijioaren aurkako heresien sailkapenean baiezen zeharo borobilak agertzea eta zentsoreak, guztiz ados ez egonik, pasatzen uztea. Halaber, bakanago gertatuko litzateke "pasatzen uztearena" zentsuratutako liburuko baiezen horien ondoren balorapen hutsaren esparrua gainditzen duen aholku moduko bat eskainiko balitz.

eta bereziki Testamentu Berria. Axularrek, ordea, erabili egin zuen, nasaiki erabili gainera, Leizarragarena, bere *Gero*-n argitaratutako hainbat pasartek erakutsi legez, Itun Berriko aipamen askotxoren euskal bertzioak Leizarragarenak berarenak baitira. Eta erabili ahal izan zuen berak zeukalako liburu mota hori irakurtzeko, ikuskatzeko eta baimentzeko/debekatzeko ahalmena. Debekatu bai, baina gorde ere gorde bide zuen aleren bat.

Are gutxiago aholku horrek errepresiorako jokamoldeetan eragitea izango balu xede. Argitaratutako liburuan agertzen bada horrelakorik, net garbia da aprobazioa eman duena bat datorrela horrekin; areago, baiezen kategoriaren arabera, esan liteke guztiz bat datorrela horrelakoekin esandakoa benetan garrantzitsua denean.

Bada, honen parekoa baino ez dirudi Axular "ulerkorraren" kasuak. Berriro ere agerian geratzen uste dira urdazubiarraren inplikazioak (ideologikoak bakarrik?) eskualde haietan eliza katolikoak, Lancreren eskutik iparraldean eta Logroñoako "auto"-aren bidez Zugarramurdi inguruan, sortu zuen errepresio bortitz eta hiltzailearekin. Horren lekukoa, hango sarraskiak gertatu eta urte gutxira (1616ko abenduaren lehenean, hain zuzen) Materreren hitzei eman zien aprobazioan datza.

Ezaguna den bezala, *Dotrina Christiana* liburuan Materrek sorginen jokamoldea (hain hurbil eta ezagun zituzten sorginen portaera, alegia) honelako hitzekin sailkatu eta azpimarratu zuen Jaungoikoaren aginduen aurkako zerrendan:

Galde. Norc eguiten du huts lehenbico manamendu hunen contra?

Ihar. Paganoec, Hereticoec, Supersticiosec, eta guztiz-ere Sorguinec (*Dotrina Christiana*, 105 or.)

Eta, horren ondoren, sorginak zer jende mota diren eta nola egiten duten huts galdetzean, honela mintzo da Materre Axularren erabateko aprobazioarekin:

Sorguinac dira iende thailu batçuc ceñec (diotenez) arnegatcen baitute bere eguiazco Iaincoaz, fedez, leguez, errecibitu duten Bathayoaz, Aita-amaz, eta Eliçaco gauça guztiez: eta guero hartcen dute bere iaun eta nabussi deabrua, adoratcen dute, cerbitçatcen dute, eta haren borondatearen arauaz (bera laguntcen çayela) eguiten dute ahal daguiten gaizqui guztia, guztiz-ere haurretan, eta lureco fruituetan. (*Dotrina Christiana*, 106-107 or.).

Eta, azkenik, balorapen hutsaren esparrua gainditzen duen aholku modukoa erantsiko du Materrek, hots, errepresiorako egiazko eredu garbia izan zitekeena eta orduko Historiak ongiro testimoniaturako zuena:

Eta halatan *hec dira munduan diren ienderic gaixtoenac*, Iaincoz eta munduz *erratcea merci dutenac*, (*Dotrina Christiana*, 107 or.; gurea da letrakera etzana).

Jakina, *Gero* argitaratzeko garaian (1643an) ez zen sorginei buruz mintzateko beharrik eta horrexegatik hain zuzen ez zuen Axularrek sorginei buruz hitz bat ere idatzi. Izan ere, ordurako sorginen ustezko arriskuak zeha-

ro ezabaturik zeuden lurralde haietan, zinez eraginkorrak suertatu baitziren "heresiak" deserrotzeko mekanismo katolikoak.

Baina, sorginik ezean, ez zitzaion ahazten Axularri alferrak eta jende galduak herri guztietan egon ohi zirela barreiatuak eta horiekin ere bazela ari-tzeko beharrik eta modurik, hots,

Ceren nola herri guztietan, ohi baita comunzqui cenbait alfer eta lende galdu, eta hec anhitz calte eta nahasteca, eguiten baitute, ontasun handia heldu çaica herriari halaco hequen khentceaz. Nola lurrari ere heldu baitçaica probetchu iorratceaz eta belhar gaixtoen atheratceaz (*Gero*, 31 or.)

Hitzotan oinarrituta, egingo genuke Axularrek ez zuela halakoen aurrean maiz pentsatu eta esleitu zaion hurkoarekiko begirunea edota barkatzeko borondatea. Are gehiago, inguruko kontrarreformisten antzera, Axularrentzat bitzta bera ere erraz eta eskubide guztiekin (arrazoi erlijioso-moralen aitzakipean betiere) ken zitekeen zerbait bide zen.

Aski bedi adibide gisara *Gero* liburuan dakarren exenplu baten ondoko iruzkintxoak irakurtzea. Bertan, iritzi hutsez haratago joan zitezkeen hitzek ezin argiago azaltzen dute Sarako erretorearen jarrera:

Corintioac hain ceizten *ayher alferrey*, ecen iccusten çutenean guiçon bat, bicitcen cela, errentaric gabe, officioric gabe, eta travaillatu ere gabe, *bere hala bertce frogantçaric gabe, bicia edequitcen baitcioten*, ceren erraiten çuten ecen, presuna alfer officioric eta errentaric etçuenac ohoinqueriaz, enganamenduz edo cenbait arte gaixtoz vsatu behar çuela eta halacoac bicia çor çuela, eta hala edequitcen cioten (*Laert. lib. 6*). *Eta on liçate orai ere, halacoequin, hala eguin baledi* (31-32 or.; gurea da letrakera etzana).

Hortaz, 1643an alfer gizagaixoak akabatzeko gertu zegoen izpiritu katoliko sutsu hil-hurranak ez dirudi hogeita hamar urte lehenago Lancrek²¹ astindu zituen "sorginekin" (munduko jenderik gaixtoenekin, alegia) eta behar

²¹ Argi geratu bide da, orobat, Axularren adiskidea zen Bertrand Etxauzen parte hartzea sorgin omen zirenen errepresioan, besteak beste sorgintzat hartutako apaizen aurkakoan. Izan ere, Baionako gotzaiak sinatu zuen Ziburuko apaiz bien "degradazioa", Migalena zaharra eta hogeita zazpi urteko Pierre Bokal izenekoa heriotzerako bidean jarri zituena. Ezin ahaztu, bestalde, Azkaineko Argibel apaiz zahar zoratuarekin ere ez zuela esku zabaltasunik erakutsi Etxauzek, "kanpoan" baitzegoen behar zenean (eta, ondorioz, Acqs-eko gotzaiak degradatuko zuen). Horrenbestez, Caro Barojak dioen bezala, "muchos sacerdotes del país se marcharon, bajo diversos pretextos" (1985, 213).

zuen ororekin bestela jokatzeko motiborik izan zezakeenik.

10. Ikusi bezala, behin-behineko konklusioek pentsamendu, ideologia eta jokamolde lasai eta ulerkorren arloan eroso sentitzen ez den pertsonaia ilun baten irudikapena egitera behartzen dute. Zilegizko pragmatismo baten gainetik abiatuz, agintarien eta boterearen beharra duen apaiz ez-ohiko baten irudia da egindako marrazkiak islatzen duena, alderdi arriskutsuetarantz makurturik agertzen dena eta, aldi berean, gizartearen kontrol-gunetan luzaroan irauten duena.

Bidezkoa izango litzateke Axularren giza profilaz mintzatzean, beraz, gutxienez haren zalantzazko soslaia agerian utziaz hitz egitea, zeren eta hone-lakoetan ez bailegoke gaizki Albert Camusek maiz oroitarazten zuena gogotan iltzatzea, hots, gizona erabat aparta eta baliagarria izan daitekeela errealitate arlo batean eta, halaber, zeharo bestelakoa ondokoan.

AIPATUTAKO BIBLIOGRAFIA

AGUIRRE GAZTAMBIDE, Juan (1980), "Notas sobre Pedro de Axular, autor del Guero", *FLV* 35/36, 403-425.

ALTUNA, Patxi (1996), "Pedro de Axular (1572?-1644)", in G. Aulestia (ed.): *Los Escritores. Hitos de la Literatura Clásica euskérica*, Fundación "Sancho el Sabio", Gasteiz, 179-208.

AXULAR, *Guero*, Bordele, 1643 (facsimilea: Bilbo, Euskaltzaindia, 1988).

AZKUE, Resurrección Maria (1925), "Curiosos documentos copiados en la Biblioteca Imperial de Berlín, de los manuscritos de Guillermo de Humboldt, a 5 de agosto de 1922", *Euskera* IV, 60-66.

AZURMENDI, Mikel (1995), "La invención de la brujería como akelarre", *Bitarte* 7, 15-37.

CARO BAROJA, Julio (1985), *Brujería vasca. Estudios vascos V*, 4. ed., San Sebastian, Txertoa.

DARANATZ, Jean Baptiste (1911a), "Bertrand d'Echoux et le Journal de Héroard", *RIEV* 5, 48-55.

_____, 1911b, "Henri IV et Axular", *RIEV* 5, 556-559.

GOÑI GAZTAMBIDE, José (1960), "La reforma de los Premonstratenses españoles del siglo XVI", *Hispania Sacra* 13, 5-96.

IRIGARAY, Ángel (1978), "Un documento inédito sobre Axular", *FLV* 30, 487-491.

LAFITTE, Pierre (1956), "Axular'en liburuaz", *Gure Herria* XXVIII-6, 314-344.

MATERRE, Esteve, *Doctrina Christiana*, Bordele, Jacques Millanges, 1623.

URQUIJO, Julio de (1911), "Axular y su libro", *RIEV* V, 538-555.

_____, (1912a), "Axular y su libro (continuación)", *RIEV* VI, 292-303 eta 547-551.

_____, (1912b), *Una fuente del Guero (Axular imitador de Fr. Luis de Granada)*, Saint Jean de Luz, J. Dargains.

XARRITTON, Piarres (1997), "Axular-i galdezka", *Egan* 3/4, 131-146.